

HARRERA PLANA

LEHEN HEZKUNTZA - LAURO IKASTOLA

SARRERA-JUSTIFIKAZIOA

Harrera planaren helburua ikasle eta guraso berriei Lauro Ikastola esparru atsegin eta seguru bezala aurkeztea da, eta egokitzapen erreza egitea, bai kanpotik badatoz, eta baita urte batzuk lehenago bertakoak izan badira ere.

Ikastolak garrantzia ematen die ikaslearen eta gurasoen lehen momentuko harremanei ikastetxera iristen diren unean. Horregatik ezinbestekoa da egoera hau prestatzea integrazio egokia lortzeko.

Ikastola zein ikastaldea arduratu behar dira modu honetan denok abegitsu bihurtzen garelako, aniztasunean elkarbizitzen ikasten dugulako eta aberastu egiten garelako harreman berriekin.

HARTZAILEAK

- Ikastolara beste ikastetxe batzuetatik datozen ikasleak eta familiak
- Ikastolara ikasturte batean edo batzuetan etorri ez diren aurreko ikasleak eta familiak

PARTE HARTZAILEAK

- Etapako zuzendaria.
- Dagokion zikloko koordinatzailea.
- Tutorea.
- Ikasle laguntzaileak.

HELBURUAK

- Antolakuntzan behar diren egokiketak egitea, ikasle edo guraso berrien onartze-egokitze-integrazioa modu koherentean bermatzeko.
- Etapa osoa motibatzea, giro egokia lortzeko ikasle berrientzat
- Gure ikasleen oreka eta autoestimua erraztea.
- Giro ordenatu eta eroso eskaintzea ikaskideen arteko harremana bultzatzeko.

- Ikasle berriek Ikastolako errutinak eta oinarrizko funtzionamendua ulertzea eta ondo moldatzea ikaskide eta irakasleekin.

URRATSAK

Ikasle berriekin:

1. Matrikulazio eta datu jasoketaren fitxa
 2. Zuzendariarekin elkarrizketa (ikaslea eta familia).
 3. Urteko programazio orokorra aurkeztu dagokion zikloko WEB-SITEen bidez (egutegi/ordutegiak, irakasleak, mailako curriculumak, irteerak, irakurketa plana, gurasoentzako informazio bilerak, zerbitzuak, etxerako lanen jarraibideak, elkarbizitzaren jarraibide/araudiak, eskola kirola eta kultur ekintzak eta ohikoenak diren galderen erantzunak).
 4. Eraikineko espazio, gela, gune guztien erakusketarako bisita gidatua.
- 4.- Irailako lehen egunetan:
- Tutore zein irakasleei ikasle berrien notifikazioa.
 - Ikasle berriaren adaptazioaren jarraipena tutorearen partetik, aurrerago gurasoei komunikatuko zaiena.
 - Ikasgelako Ikasle Laguntzaileen (4.LHtik aurrera bada) eta bestela tutoreak izendatutako ikasle pare baten laguntza ehen egunetako integrazioan laguntzeko.